

Sei herri aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat

(Six local magazines: an approximation from an analysis of contents)

Larrañaga, Jotxo; Gabantxo, Miren; Aranguren, Asier

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48

20007 DONOSTIA

BIBLID [1137-4462 (1997), 6; 15-45]

Aztertu gabe dagoen hedabide lokalaren hesparru bat hartu dugu, herri prentsa alegia. Eduki azterketaren bidetik hurbilketa egin dugu, 6 aldizkari aukeratu. Estatu Batuetan 60. hamarkadan hasi eta Euskal Herrira 80.aren erdialdera iritsi da Herri Prentsa gauzatzea. Zabalkunde eta ezarpena, batez ere 91-93 urteen artean haunditu da. Egun, Euskal Herrian euskaraz argitaratzen diren herri aldizkariak 100.000 aleren muga bertan-bertan daude eta inkestak arabera, aldizkari bakoitza 3 pertsonen irakurtzen dutenez, 300.000 irakurle inguru dauka herri prentsa, hau da, bi euskaldunetik batek baino gehiagok irakurtzen du tokian-tokiko prentsa euskaraz.

Giltz-Hitzak: Herri prentsa. Sorrera. Lantaldea. Produkzio sistema. Finantziarioa. Herriaren parte hartzea.

Este trabajo intenta investigar el campo inexplorado de la prensa local en euskara. Se ha realizado a partir del análisis de contenido de 6 revistas locales distribuidas por toda Euskal Herria. Se trata de un fenómeno que surgió en EEUU en los años 60 y echó raíces en el País Vasco en la década de los 80. Se desarrolló entre los años 91 y 93 con 35 publicaciones y 85.000 ejemplares. El año 94, período investigado, la tirada alcanza los 100.000. Atendiéndonos a las encuestas, más del 50% de los ciudadanos vascoparlantes leen una publicación local.

Palabras Clave: Prensa local. Creación. Grupo de trabajo. Sistema de producción. Financiación. Participación ciudadana.

Le travail que nous présentons maintenant c'est le fruit de l'investigation de la Presse Locale en Basque pendant l'année 1994. On a élu 6 différents publications de diverse procedence du Pays Basque et le travail est dirigé vers l'analyse du contenu. C'est un phenomene, celui de la presse locale, qui été né aux Etats Unis pendant le periode des années 60 et fut introduit en Euskal Herria vers la década de les 80. Le development on verra entre les années 91 et 93 avec 35 publications locaux et 85.000 exemplaires. Dans 1994 l'edition augmente jusqu'a les 100.000 exemplaires et si nous nous referons aux enquetes, plus que le moitié de basqueparlants citoyens au Pays Basque lisent la presse locale.

Mots Clés: Presse locale. Creation. Groupe de travail. Système de production. Participation des citoyens.

1. SARRERA

“CNN iritxi ezin daitekeen lekura” sloganarekin egiten du publizitatea ETB-ko Euskadi Zuzenean programak. Helburua ikuslearen berta-bertako berrietara iristea bait da informatibo horretako zuzendari eta lantaldearentzat.

Medioz aldatuz, prentsa idatzira iraganaz, gauza bera esan daiteke tokian-tokiko herri prentsez: “The New York Times, El País eta Egunkaria iristen ez diren lekuan”. Argeliako matxinada islamistaren berri, Estatuko inflazioaren berri edo Urbina-Maltzagako errepidearen berri badaukagu eguneroko prentsa idatzian, ez ordea herrian bertan izan den zinegotzi alduketari buruz, edo herriko futbol taldeak egin duen azken fitxaketari buruz edo bertako entrepresa familiar batek itxi beharra izan duenean kalean utzitako langileen buruzko informazio zuzen, gertuko eta egiazkorik.

Estatu Batuetan 60. hamarkadan hasi eta Euskal Herrira 80. aren erdialdera iritsi da Herri Prentsaren gauzatzea. Tokian-tokiko prentsaren sortze, hazte eta bilakatzea. Zabaldunde eta ezarpena batez ere 91-93 urteen artean handitu da, 1991. urtean Euskal Herrian 26 aldizkari eta 60.700 aletik 1993ko 36 eta 85.000 aleko tiradara iritxi arte. Egun Euskal Herrian euskaraz argitaratzen diren herri-aldizkariak 100.000 aleren muga bertan-bertan dute eta inkesten arabera aldizkari bakoitza 3 pertsonak irakurtzen dutenez, 300.000 irakurle inguru dauzka gaur egun euskal herri prentsak, hau da, bi euskaldunetik batek baino gehiagok irakurtzen du tokian-tokiko prentsa euskaraz.

Arrakastatsu gertatu diren aldizkariak, gainera, badituzte zenbait elementu amankomunean: informazio aldizkariak dira, astekari edo hamabostekariak, publizitateaz eta erakunde publikoen dirulaguntzaz finantziatuak, oinarritzko langile azpiegitura profesionala dute, autoedizioa erabiltzen dute produkzio prozesuan, pribatuak dira eta euskaraz argitaratzen dira.

Hizkuntzari dagokionez aipatu beharrekoa da, derrigor, aldizkari hauetarik asko euskara taldeen inguruan sortutakoak direla hasera batetan, hizkuntzaren normalizazio prozesuan lagungarri izateko asmoz. Sarri, gainera, estrategia garbi batekin: sor dezagun euskaraz egindako herri aldizkari bat beharra hor dago -eta, bestela gazteleraz argitaratuko bait dute lehen baino lehen. Egia da, baitere, euskalkiek makina bat buruhauste eman dietela herri aldizkarietako lantaldeei, zein garrantzi eman eta nola tratatu bertako euskara?. Egun argitaratzen diren herri-aldizkari gehienak euskara batuaz daude baina 2. Herri Komunikabideei buruzko ihardu-naldietan aipatutako “gauza bakoitza bere lekuan eta leku bat gauza bakoitzarendako” eskariari ez zaio orain artean erantzun egoki bat eman. Prozesuan, bizi-bizi, dagoen eztabaida da.

Asier Aranguren, Miren Gabantxo eta hiruron artean eginiko azterketa lanaren laburpen bat da MEDIATIKA aldizkarian aditzera ematen dudana hau. EUSKO IKASKUNTZAren 1994ko Angel Apraiz Ikerketa Bekari dagokion lana duzu hau irakurle.

2. HELBURUAK

Herri komunikabideen azterketaren esparruan abiapuntu izan nahi du lan honek. Orain artean apenas dago ezer idatzita edo landuta eta euskalgintzan eta komunikazioan duen garrantzia izanik ikerketa bide bat dela iruditu zaigu.

Helburu nagusia aldizkariak hobeto ezagutzea da lehenengo. Zer eduki dituzten, nola eginda dauden, nork egiten dituen, zer harrera duten irakurleengan, zenbat irakurtzen diren... galdera asko dira eta galdera hoiak erantzuten ahalegindu gara.

Ezagutzarako hiru arlo nagusi banatu ditugu.

1. Alde batetik igorlea bera nahi dugu ezagutu. Nork egiten du aldizkaria. Zenbat jendek, kontratatuta daude ala ez, zer teknologia erabiltzen dute. Zeintzu dira euren lan ohiturak. Nola finantziatzen dute proiektua.

Kaiserren fitxa deskriptiboa osatu ostean lau arlo ikutu ditugu batez ere:

- Sorrera
- Lantaldea
- Produkzio sistema
- Finantziak.

2. Edukia aztertzerakoan mamia bera ikertzea izan dugu helburu. Irakurlearen etxera iristen den produktua hain zuzen.

3. Hartzailea edo irakurlea da aldizkari hori irakurri eta erabiliko duena, zein eritzi daukan jaso dugu. Irakurlearen perfila lehenengo eta gustokoen dituen sailak gero.

Hiru arlo hauek lantzearekin 1994.eko euskal herri aldizkaritzaren egoeraren isla jaso nahi izan dugu. Herrigintzan eta komunikazioan aire freskoa ekarri duen fenomenoaren zergatiak eta nondiknorakoak azaldu.

3. METODOLOGIA

Lehenengo eta behin aipatu beharrekoa, hutsetik sortzea zaila da benetan. Herri aldizkarigintza lantzeko eredurik ez dugu inon aurkitu eta beraz ezerezetik asmatu eta egokitu behar izan dugu lanerako metodologia.

Hori alde batetik, eta bestetik herri aldizkarigintzan iturriak ez dira beti finkoak. Batez ere antolakuntza maila ez delako gehien landu den arloa eta lantaldeari dagokionez ere jendea aldatzen doalako etengabe, ondorioz informazioa lortzeko modua ez dago mekanizatua.

3.1. Aukeraketa

Hurbiltze honetan, bada, 6 aldizkari aukeratu ditugu eta seiok azertuaz herri prentsaren egoera orokorraren argazkia atera nahi izan dugu. Izan ere aldizkari guzti guztiak lantzea gure lan aukeretatik kanpo bait dago Angel Apraiz beka honetan.

Hori bai, aukeraketa egiterakoan ereduak bilatu nahi izan ditugu, egia bait da aldizkari asko mimetismoz edo aurrekoren bat izpilu aurrean hartuta sortu direla.

Hona hemen aukeraketa eta zergatiak.

ARRASATE PRESS. Aintzindaria da, askorentzat, denbora luze batez behinik behin, eredu markatu duena. Entrepresa baten antzera gestionatuz hasi zen lehenengoa. 1986 .ean sortua. % XX euskalduna duen herri industrial batetan . Udaletxea babesle. Astekaria.

TTIPI-TTAPA: Beteranoena da, 1989.ean sortua. Nafarroan. Eskualde aldizkaria da, "Herri Herri" saila bait du mardulena. Baztan, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako berriak jasotzen ditu, nekazari herri txikiak batez ere. Hamabostekaria.

AKATZ: Bermeotarra. Bizkaitarra eta itsasaldeko herri arrantzale bateko aldizkaria beraz. Hamabostekaria. 1990ean sortua.

GOIERRITARRA: Eskualde aldizkaria. Herri industrializatuak. Literatur aldizkaritik informazio herri aldizkarirako bidea egindakoa. Goierriko herrietan beste tokian-tokiko aldizari txikiak ere badaude. Hamabostekaria. 1989.ean sortua.

BARREN: Elgoibarreko aldizkaria. Herrikoa. Lan produkzio oso landu eta planifikatua.

IRUTXULO: Donostian argitaratzen da. Euskal Herriko hiribururik euskaldunenean beraz. Proiektu berria, besteengandik ikasitakoa jaso duena. Astekaria.

3.2. Lanaren egitura

Helburuetan aipatu bezala Igorlea - Mezua - Hartzailera eskeman antolatu dugu azterketa. Honela edukia aztertzeko orduan egilearen eta irakurlearen bizkarrezurra ere ondo eza-gutzeko eta ondorioz aldizkari horren bizitzaren irudi osoa izateko.

3.2.1 Igorlea

Egilea da. Atal honetan fitxa orokor bat bete dugu lehenengo datu nagusi guztiekin. Egilearen eskeletoa izango litzateke hau.

Gero sorrera aipatu dugu lehenengo eta behin. Nola, noiz eta nondik hasi zen aldizkaria. Lantaldea ere aztertu dugu, zenbat langile, kolaboratzaile eta laguntzaile diren, zein kondiziotan lan egiten duten eta zein kontratu tiporekin. Produkzio sistema ere aztertu dugu, teknologia eta lan ohiturak batez ere. Eta azkenik finantzak landu ditugu, diruiturriak eta gastuak, edozein proiektutan dirua nondik eta nola erabiltzen den ikusteak klabe asko argitzen bait ditu.

3.2.2 Mezua

Edukia da, produktua, mamia beraz. Lehenengo eta behin, eta datuak behar bezala jasotzeko hustuketa bat egin dugu. Hartu 1994. urteko hilabeteroko azken aleak eta planilla tipo bat egin ondoren datu guztiak lortu ditugu. Gero ikerketa zehatzagorako 1994. eko Urriako azken alea hartu dugu aztergai.

Landutako gai nagusiak honakoak izan dira:

1. Azalak.
2. Sekzioak.
3. Udaletxea.
4. Informazioa - Eritzia.
5. Herritarraren partehartzea.
6. Euskara.
7. Argazkiak.
8. Gehigarriak.
9. Iragarkiak.

Azterketa honekin noski helburuetan aipatutako galderei erantzuna aurkitzen saiatu gara.

3.2.3 Hartzaillea

Azken finean lantaldeak egindako produktua norbaitek irakur dezan dago eginda, edo ikusi dezan gutxienez. Irakurleak ez balego lan guzti horrek ez luke zentzurik eta hartzaillea hobeto ezagutzen ahalagindu gara hirugarren puntu honetan. Lehenengo eta behin bere perfila ezagutu dugu, aldizkaria zenbateraino ezagutzen duen jakin dugu segidan, etxean jasotzen duen ala ez, zein atal edo sekzio dituen gustokoen eta aldizkariak egiten duen balorazioa ere jaso dugu azkenik. Guzti hori kalean egindako inkestetan jasotako datuekin jakina.

Hiru atal hauekin bada itxi egin dugu komunikazio prozesua, egilea, produktua eta irakurlea ezagutu egingo ditugu orain.

3.3. Tresna bereziak

Ikusi bezala, bi dira datuak jasotzeko erabili ditugun tresna bereziak edo egokituak. Alde batetik oinarritzko planilla bat borobildu dugu datu hustuketa egiteko, mezuaren atalerako batez ere. Bestetik, eta hartzaillearen alorrerako kaleko inkestari esker jaso ditugu datuak. Hona bi ereduak.

3.3.1 Oinarritzko Planilla

Datu bilketa egiteko, neurri amankomunak behar genituen lanak berdintasunez aztertze-ko, homogeneous izateko. Aldizkariaren arteko konparaketa egiteko ere planilla bat egin beharra genuen azterketa guztiak maila berdinean egiteko. Helburu horrekin osatu dugu honako planilla hau, geure neurria egindakoa da noski:10 erreferentzia.

1. ALDIZKARIA.
2. ZENBAKIA.
3. DATA.
4. IZENBURUA.
5. TARTEKIAK.
6. SINADURA.
7. GENEROA.
 1. Informazioa.
 - 1.1. Albistea.
 - 1.2. Erreportaia.
 - 1.3. Elkarrizketa.
 - 1.4. Kronika.
 2. Eritzia.
 - 2.1. Editoriala.
 - 2.2. Artikulua.
 - 2.3. Kritika.
 - 2.4. Irakurlea.
 - 2.5. Inkesta.
 - 2.6. Zutabea.
 3. Literatura.
 - 3.1. Zabalkundea.
 - 3.2. Bertsoak.
 - 3.3. Ipuinak.
 4. Komikia.

- 5. Denporapasak.
- 6. Azala
- 8. KATEGORIA.
 - 1. Udala.
 - 2. Taldeak.
 - 2.1. Sozialak.
 - 2.1.1. Intsumisoak.
 - 2.1.2. Emakumeak.
 - 2.1.3. Feministak.
 - 2.1.4. ONG.
 - 2.1.5. Gazteak.
 - 2.1.6. Hirugarren adinekoak.
 - 2.2. Erlijiosoak.
 - 2.3. Etnikoak.
 - 3. Alderdiak.
 - 3.1. PNV.
 - 3.2. HB.
 - 3.3. PSOE.
 - 3.4. EA.
 - 3.5. PP.
 - 3.6. IU.
 - 3.7. UPN.
 - 4. Ekonomia.
 - 4.1. Enpresa.
 - 4.2. Langabezia.
 - 4.3. Gatazka kolektiboak.
 - 4.4. Nekazaritza.
 - 4.5. Itsaslana.
 - 4.6. Merkataritza.
 - 4.7. Kontsumitzailea.
 - 4.8. Komunikabideak.
 - 4.9. Kooperatibak.
 - 5. Kultura.
 - 5.1. Antzerkia.
 - 5.2. Musika.
 - 5.3. Dantza.
 - 5.4. Margolaritza.
 - 5.5. Eskultura.
 - 5.6. Artisautza.
 - 5.7. Ondare artistikoa.
 - 5.8. Gastronomía.
 - 5.9. Bertsolaritza.
 - 5.10. Hezkuntza.
 - 5.11. Liburuak.
 - 5.12. Zinea.
 - 6. Kirola.
 - 6.1. Futbola.

- 6.2. Atletismoa.
- 6.3. Eskubaloia.
- 6.4. Saskibaloia.
- 6.5. Igeriketa.
- 6.6. Estropadak.
- 6.7. Txirrindularitza.
- 6.8. Herri kirolak.
- 6.9. Ehiza.
- 6.10. Rugby.
- 6.11. Judo.
- 6.12. Kirol osasuna.
- 6.13. Pelota.
- 6.14. Mendia.

7. Euskara.
8. Historia.
9. Ekologia.
10. Osasuna.
11. Euskal Herriko gatazka.
12. Jaiak.

9. HERRIA. eta 10. ORRIALDEA.

3.3.2 Inkesta

Adibide modura Arrasate Pressen inguruan herrian bertan egindako inkesta hemen ikusgai.

Adina: 1: 0-24. 2: 25-35. 3: 36-60. 4: 60tik aurrera.

Sexua: 1. Gizona, 2. Emakumea.

Lanbidea: 1: Ikaslea. 2: Lantegian. 3: Etxekoandrea. 4. Langabezian

1. Emaidazu euskaraz idazten diren egunkari eta aldizkariaren izenak:

- | | |
|--------------------|------------------|
| 1. Arrasate Press. | 4. Jazten |
| 2. Egunkaria | 5. Aizu |
| 3. Argia. | 6. Beste Batzuk. |

2. Ezagutzen duzu Arrasate Press? (1ngoan Arrasate Press aipatu duenari galdera ez egin).

- | | |
|--------|-------------------------------------|
| 1. Bai | 2. Ez. (Hemen bukatzen da inkesta). |
|--------|-------------------------------------|

3. Badakizu nork argitaratzen duen Arrasate Press?

- | | |
|---------|--------|
| 1. Bai. | 2. Ez. |
|---------|--------|

3.1. Nork?

1. Arkok.
2. Udaletxeak
3. Beste batzuk.

4. Jasotzen duzu etxean Arrasate Press?

- | | |
|--------|--------|
| 1. Bai | 2. Ez. |
|--------|--------|

5. Gainbegirada bat ematen diozu?

1. Bai. 2. Ez.

5.1. Zergatik? (Ez erantzun dutenek)

1. Euskaraz ez dakidalako
2. Interesatzen ez zaidalako
3. Beste batzuk.

6. Zenbatero irakurtzen duzu?

1. Beti.
2. Sarri.
3. Noizean behin.

7. Zenbat denbora ematen duzu irakurtzen?

- | | |
|------------------------|-----------------------|
| 1. 15' baino gutxiago. | 3. 30'-40' bitartean. |
| 2. 15'-30' bitartean. | 4. 40' baino gehiago. |

8. Zenbat denbora izaten da etxean?

1. Astebete.
2. 2-3 egun
3. Egun bakarra.

9. Zein sekzio irakurri edo ezagutzen dituzu? (x bat ipini).

- | | |
|-----------------------|----------------------------|
| 1. Ikuspegia. | 11. Gehigarriak, Zaldibar. |
| 2. Gutunak. | 12. Elkarrizketa. |
| 3. Inkesta. | 13. Erreportaia. |
| 4. Asteko Agenda. | 14. Kirolak. |
| 5. Besteek esana. | 15. Elikadura. |
| 6. Asteko errepassoa. | 16. Zer Nahiago. |
| 7. Iritzia. | 17. Kultura Saltsan. |
| 8. Orain eta Hemen. | 18. Fotozaharra. |
| 9. Txutxumutxuak. | 19. Azoka Plaza. |
| 10. Denbora pasa. | |

10. Zein da sarrien irakurtzen duzun sekzioa?

B: Beti; S: Sarri; G: Gutxitan.

- | | |
|------------------------|------------------------|
| 1. Ikuspegia. B, S, G. | 11. Gehigarriak. B,S,G |
| 2. Gutunak. | 12. Elkarrizketa. |
| 3. Inkesta. | 13. Erreportaia. |
| 4. Asteko Agenda. | 14. Kirolak. |
| 5. Besteek esana. | 15. Elikadura. |
| 6. Asteko errepassoa. | 16. Zer Nahiago. |
| 7. Iritzia. | 17. Kultura Saltsan. |
| 8. Orain eta Hemen. | 18. Fotozaharra. |
| 9. Txutxumutxuak. | 19. Azoka Plaza. |
| 10. Denbora pasa. | |

11. Zuk idatzi duzu inoiz?

1. Bai. 2. Ez.

11. 1. Zure argazki edo izena agertu da inoiz?

1. Bai 2. Ez.

12. Nola isladatzen du herrian gertatzen dena eta bizi dena?

1. Oso ondo 5. eskax
2. Ondo 6. Oso eskax.
3. Naiko.

13. Zein iritzi daukazu Udaletxeaz ematen den informazioaz?

1. Oso ondo 5. Eskax
2. Ondo 6. Oso Eskax.
3. Naiko

14. Ba du zure ustez kutsu ideologikorik?

1. Bai. 2. Ez.

14. 1. Zein alderdiren kutsua dauka? (Bai erantzun duenari).

1. PNV 4. PSOE
2. HB 5. PP
3. EA 6. Besteak.

15. Darabilen euskara ulertzen duzu?

1. Bai. 2. Ez.

16. Arrasateko euskararen presentzia zenbatekoa da?

1. Gutxiegi
2. Ondo.
3. Gehiegi.
4. Ez dago bertako hizkuntzaren beharrik.

17. Zer zara zu?

1. Euskaldun berria. 2. Euskaldun zaharra.

18. Arrasate Press jasotzen hasi aurretik euskaraz irakurtzeko ohiturarik bazenuen?

1. Bai. 2. Ez.

19. Astekariaren diseinua nolakoa da?

1. Irakurterraza.
2. Nahastua
3. Argazki gutxi.
4. Argazki gehiegi.

20. Aipatu Arrasate Pressen agertzen diren 3 iragarki.

21. Zuk egin duzu publizitaterik Arrasate Presen inoiz? (merkatariei)
22. Zer aldatu, hobetu edo eraberrituko zenuke?. Zer dago faltan?.
23. Baloratu Arrasate Press 0-tik 10-era.

Metodologiari dagokionean beraz makina bat arazo izan ditugu eredurik ez eukitzearen ondorioz baina behin eta martxan jarri ondoren errazagoa izan da lanarekin aurrera egitea. Gainera lan honen ekarpen nagusietariko bat izan daitekeela uste dugu urrengo azkertzailentzat. Hasieran esan bezala hutsetik sortzea baino errazagoa bait da dagoena egokitu eta hobetzea.

4. EDUKIAREN AZTERKETA

Lan honen mamia da. Metodologia puntuan aipatu bezala komunikazio sistema oinarrikoan erroturik hiru puntutan banatu dugu azterketa: igorlea edo egilea, mezua edo produktua bera eta hartzailea edo irakurlea. Hiru atalak lantzearen arazoia, noski, aldizkariaren izaera oso osorik ezagutzea izan da. Ez bait dago zehatz-mehatz jakiterik nolakoa den produktua nork eta nola egiten duen ez badakigu alde batetik eta irakurtzen duenak zer eritzi duen eza gutzen ez badugu bestetik.

4.1. Igorlea**4.1.1. ARRASATE PRESS****1. Kaiserren fitxa:**

1. Izena: ARRASATE PRESS.
2. Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak).
3. Helbidea: AZOKA KALEA, 1. 20.500 Arrasate. Gipuzkoa.
Tf: 770565. Fax: 770940.
4. Zenbatekotasuna: Astekaria
5. Lehen alea: 1988.eko Abenduak 2.
6. Zabalkundea: Arrasateko herrian, buzoneatu. Kanpotarrei,
harpidetaz, korreoz bidali.
7. Tirada: 5.500 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatoa: DIN A4.
10. Orrialdeak:36.
11. Zutabeak: 6 x 4.
12. Artxiboa: ARKOn bertan.

2. Finantziaketa**Irteerak**

1. Pertsonala	26.303.000
2. Subkontratak	7.590.000
3. Gastu Sozialak	700.000
4. Material erosketa	4.082.000
5. Inprenta	14.920.000
6. Konponketak	800.000
7. Komunikazioak	643.000
8. Finantzieroak	468.000
9. Korreos	435.000
10. Banaketa	1.538.000
11. Komisioak	1.045.000
12. Gida Komertziala	1.400.000
13. Amortizazioak	1.701.000
14. Baste batzuk	850.000
GUZTIRA	62.475.000

Sarrerak

1. Publizitatea	19.000.000
2. Gida Komertziala	3.000.000
3. Bestelakoak	900.000
4. Diru Laguntzak	
Udala	30.010.000
Eusko Jaurlaritza	2.500.000
Foru Aldundia	3.700.000
5. Beste laguntzak	1.500.000
GUZTIRA	60.610.000

4.1.2. GOIERRITARRA

1. Kaiserren fitxa

1. Izena: GOIERRITARRA.
2. Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkartea.
3. Helbidea: Dorre Etxea, 1. Beasain.
4. Zenbatekotasuna: Hamabostekaria.
5. Lehen alea: 1989.eko Azaroan, hilabetekaria.
6. Zabalkundea: Goierriko 14 herrialde eta auzotan.
7. Tirada: 6.000 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatoa: DIN-A4.
10. Orrialdeak: 28.
11. Zutabeak: 3 x 4.
12. Artxiboa: Lazkaoko Beneditarren artxibategian, Gasteizko Fundacion Sancho el Sabion, Donostiako KMn eta Goierriarraren erredakzioan.

2. Finantziaketa

Irteerak

Inprimategia	4.100.000
Pertsonal Gastuak	6.720.000
Azpiegitura Gastuak.....	1.500.000
Banaketa825.000
GUZTIRA	13.145.000

Sarrerak

Publizitatea	7.489.900
Goierriko Udalak	3.000.000
Eusko Jaurjaritza	1.505.100
Gipuzkoako Diputazioa	1.150.000
GUZTIRA	13.145.000

4.1.3. *BARREN.*

1. Kaiserren Fitxa

1. Izena: BARREN.
2. Argitaratzailea: Elgoibarko Izarra kultur elkarte.
3. Helbidea: P. Ubitarte, 4. Elgoibar.
4. Zenbatekotasuna: Astekaria.
5. Lehen alea: 1993. eko Urtarrilan.
6. Zabalkundea: Elgoibarren eta Mendaron.
7. Tirada: 3.000 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatoa: DIN A4.
10. Orrialdeak: 28.
11. Zutabeak: 6 x 4.
12. Artxiboa: Elgoibarko Udal Liburutegian eta erredakzioan.

2. Finantziaketa

Irteerak

Pertsonal Gastuak	12.684.000
Inprenta	7.770.000
Banaketa	750.000
Bulegoa	388.000
Argazkiak	360.000
Ekipamenduen amortizazioa	500.000
GUZTIRA	22.452.000

Sarrerak

Publizitatea	8.100.000
Eusko Jaurlaritza	2.000.000
Foru Aldundia	2.000.000
Elgoibarko Udala	10.352.000
GUZTIRA	22.452.000

4.1.4. IRUTXULO

1. Kaiserren fitxa

1. Izena: IRUTXULO.
2. Argitaratzailea: Donostiako Komunikabideak E. M.
3. Helbidea: Euskal Herria Plaza Z/g 20.001. Donostia.
4. Zenbatekotasuna: astekaria.
5. Lehenengo alea: 1994.eneko Martxoaren 25.
6. Zabalkundea: Donostian buzoneatu. Kanpora, harpidedunei, korreoz.
7. Tirada: 7.000 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatua: DIN A4.
10. Orrialdeak: 36.
11. Zutabeak: 6x4.
12. Artxiboa: Irutxulon bertan.

2. Finantziaketa

Irteerak

1. Gastu orokorrak	2.247.000
2. Gastu extrak	576.000
3. Soldatak	11.427.000
4. Publizisten komisioa	1.957.000
5. Banaketa	1.773.000
6. Sustapena	557.000
7. Inprimategi gastuak	7.187.000
8. Erredakzio gastuak	1.533.000
9. Finantza gastuak	2.116.000
10. Inbertsioak	3.104.000
11. Diseinua	600.000
12. Altzariak	97.000
13. Besterik	1.006.000
GUZTIRA	34.542.000

Sarrerak

1. Mailegua	3.000.000
2. Publizitate sarrerak	18.753.000
3. Dirulaguntza ofizialak	6.700.000
4. Bestelako dirulaguntzak	4.320.000
5. Bagerako dirulaguntzak	500.000
GUZTIRA	33.273.000

4.1.5. AKATZ

1. Kaiserren fitxa

1. Izena: AKATZ.
2. Argitaratzailea: Ikuspegi Kultur Taldea.
3. Helbidea: Nardiz tar Benazio 19, BERMEO.
4. Zenbatekotasuna: hamabostekaria.
5. Lehen alea: 1990.eko uztailean.
6. Zabalkundea: Bermeo.
7. Tirada: 2.300 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatoa: DIN A4.
10. Orrialdeak: 20.
11. Zutabeak: 3x6.
12. Artxiboa: Akatz-eko Erredakzioan eta Bermeoko Udal Liburutegian.

2. Finantziaketa

Sarrerak

1. Eusko Jaurlaritza	2.012.100
2. Publizitatea	1.700.000
3. Bizkaiko Diputazioa	1.000.000
4. Bermeoko Udala	320.000
GUZTIRA	5.032.100

Irteerak

1. Pertsonal gastuak	1.700.000
2. Inprimategia	2.400.000
3. Banaketa	252.000
4. Egoitza alokatzea	240.000
5. Erredakzio gastuak.....	410.000
6. Amortizazioak	100.000
7. Konponketak	50.000
GUZTIRA	5.152.000

4.1.6. TTIPI TTAPA

1. Kaiserren fitxa

1. Izena: TTIPI TTAPA.
2. Argitaratzailea: Ttipi Ttapa Kultur Taldea.
3. Helbidea: Herriko Etxeko plaza, 1/ Bera 31870.
4. Zenbatekotasuna: hamabostekaria.
5. Lehen alea: 1989.
6. Zabalkundea: Nafarroako Baztanaldea-Bortziriak-Leitzaldea-Malerreka-Saraldea (25 herri).
7. Tirada: 5.850 ale.
8. Prezioa: Dohainik.
9. Formatoa: DIN A4.
10. Orrialdeak: 40.
11. Zutabeak: 4x8.
12. Artxiboa: Bera, Elizondo, Donestebe eta Baztaneko Udal Liburutegian Gasteizko Sancho El Sabio Liburutegian, Ttipi Ttapako Erred..

2. Finantziaketa

Sarrerak

1. Publizitatea	12.000.000
2. Nafarroako Gobernua	7.800.000
3. Bortzirietako Euskara Mankomun	3.850.000
4. Beste Udalak	500.000
GUZTIRA	24.150.000

Irteerak

1. Pertsonal gastuak	10.500.000
2. Inprimategia eta manipulazioa	11.000.000
3. Banaketa eta Frankeo Kontzertua	1.000.000
4. Inbertsioak	1.500.000
GUZTIRA	24.000.000

5. INKESTAREN EMAITZAK

5.1. ARRASATE PRESS

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila:

O-24 urte. Emakumezkoa. Ikaslea. Euskaldun zaharra.

2. ARRASATE PRESS oso ezaguna da (%91), baina herritarrek ez dakite nork argitaratzen duen (%56).

3. Arrasatear gehienek etxean jasotzen dute (%80.6); beti edo sarri irakurtzen dute (%58.2); 15-30 minutu bitartean ematen dituzte gainbegiratzen eta astebetez gordetzen dute etxean (%68.7) hurrengo alea etorri bitartean.

4. Herritarren presentzia eta partehartzea exkaxa da, %5-ak bakarrik idatzi du inoiz ARRASATE PRESSen eta norberaren argazkia %19.4-ak ikusi du inprimatuta.

5. Arrasaten gertatutakoa ondo isladatzen du (%55.2), Udaletxeko kontuen berri ematera-koan ere informazio ona eskaintzen du (%34.3), eta ez zaio kutsu ideologikorik nabarmentzen bere jardueran (%67.2).

6. Arrasateko euskararen presentzia gutxiegiak dela uste du bertako askok (%43.3), eta euskaldun zaharren artean gainera areagotu egiten da beharra (%61). Dena den astekariak darabilen euskara oso ondo ulertzen da (%86.6). Lehen euskaraz irakurtzen ez zuen euskal irakurle kopuru garrantzitsua sortu du ARRASATE PRESSek (%20.9).

7. Atalez atal Inkesta eta Fotozaharra dira irakurrienak eta aipatuena, Elkarriketa eta Denporapasak daude bigarren postuan eta Kirolak, Zaldibar eta Erreportaia podiumeko 3. lekuan.

Adinez, gazteek Kirolak, Zaldibar eta Denbora Pasa dituzte gogokoen. Sexuari dagokionez berriz, Txutxumutxuak batez ere emakumeek irakurtzen dituzte eta erreportaia gizonezkoek.

Gutxien irakurtzen direnen artean Elikadura, Besteek Esana, Kultura Saltsan eta Gutunak aipatzen dira.

8. Itxura eta maketazioa irakurterraza da.

9. Balorazioa 7.781 puntutakoa izan da.

5.2. GOIERRITARRA

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila: 0-24 urte, emakumezkoa, langabetu edo jubilatua, euskaldun zaharra.

2. Goierritarra oso ezaguna da bere banaketa hesparruan (%90) baina irakurleatarik bitik batek ez daki nork argitaratzen duen (%50). %31.7k asmatzen du Goierritarra elkarteak plazaratzen duela esatean baina %10k Udaletxeak argitaratzen duela uste du.

3. Etxean %61.7k jasotzen du eta erdiek irakurtzen dute beti (%50). Gehientsuenek (%45) 15 eta 30 minutu bitartean ematen dituzte aldizkaria irakurtzen eta astebetez izaten dute etxean (%58.3).

4. Herritarren partehartzea ez da hutsaren hurrengoa %17-k idatzi du inoiz eta %38.3-ren argazkia agertu da noizbait aldizkarian.

5. Herrian gertatutakoa ondo (%56.7) isladatzen du Goierritarrak eta Udaletxeaz ematen duen informazioa ere ona da (%41.7).

Herritarren %68.3-rentzat aldizkariak ez du kutsu ideologikorik baina bai ordea %21.7-rentzat. HB da kutsu aipatuena (%11.7).

6. Goierritarrak darabilen euskara ulertu erraz egiten da (%86.7), eta bertako hizkuntza gutxi erabiltzen dela uste dutenak %18.3 dira.

Irakurleatarik %26.7-k ez zeukan bailara aldizkari jasotzen hasi aurretik euskaraz irakurtzeko ohiturarik.

7. Atalik irakurrienak Inkesta eta Fotozaharra dira eta gutxien irakurtzen direnak berriz Berriak Labur eta Eskutitzak.

8. Astekariaren diseinua nahastua da gehientsuenetzat (%48.1).

9. Balorazio orokorra 8.02.

5.3. BARREN

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila: 16-30 urte, Emakumea, ikaslea eta euskaldun zaharra.
2. BARREN aldizkaria herriko gaiei buruzko informatzailea eta herriko komunikabidea da %86-aren ustez. Euskal aldizkarien artean ezagunena da eta %88,6-ak ezagutzen du herrian.
3. Heritarren %78-ak nork argitaratzen duen Barren badakiela esaten du baina %51,4-ak bakarrik ezagutzen du egia, Elgoibarko Izarrak plazaraten duela, hain zuzen. Oso banaketa ona dauka %82,9ak etxean jasotzen bait du, %85,7-ak, gainera, gainbegirada bat ematen dio eta beti irakurtzen dutenak %65,7 dira. 15/30 minutu ematen dute irakurtzen gehienek eta 2-3 egun izaten dute etxean.
4. Herritarren partehartzea oso da azpimarkatzekoa %38ak inoiz idatzi egin bait du Barrenen eta %42,9-ren argazkia ere agertu da inoiz.
5. Elgoibarren gertatzen dena nahiko ondo isladatzen du Barrenek %40-aren eritziz eta udaletxeaz ematen duen informazioa ere nahikoa da %51,4-arendako.
- Irakurleagoaren %65,7ak ez dio kutsu ideologikorik hartzen eta hartzekotan %8,6-ak HB alderdiarena hartzen dio.
6. Barrenek darabilen euskara zailtasunik gabe ulertzen du %82,9-ak eta bertako hizkuntzaren erabileraz ere konforme daude, %51,4k ondo dagoela uste bait du.
- Kontutan hartzeko beste datu bat. Barren irakurtzen hasi aurretik euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zutenak %17,1 dira.
7. Motzian kontatzekuak, Fotozaharra, Udaletxetik udalerrira eta Inkesta dira beti irakurtzen diren atalak. Gutxitan berriz Zenbat buru hainbat aburu, gaztaroa aro eroa, kirolak, gehigarriak eta agenda.
8. Astekariaren diseinua irakurterraza da %80-arentzat.
9. Balorazioa 8.032ean ipini dute herritar eta irakurleek.

5.4. IRUTXULO

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila: 36-60 urte, emakumezkoa, langilea, euskaldun zaharra.
2. Donostiako euskaldunen artean %54-k ez du Irutxulo ezagutzen eta ezagutzen dutenen artean %34-k ez daki nork argitaratzen duen. Hori bai jakin badakitenen artean %60k Bagerak argitaratzen duela uste du eta %4-k bakarrik Udaletxeak plazaratzen duela.
3. Etxean %60-k jasotzen du bakarrik. %38-k ez du etxean jasotzen. Beti %40-k irakurtzen du 15 minutu baino gutxiago erabiliz gainbegiratzeko (%56) eta astebetez (%38) izaten da etxean.
4. Herritarren partehartzea oso urria da, %96-k ez du inoiz idatzi Irutxulon eta %14-ren argakia edo izena inoiz argitaratu da astekarian.
5. Hirian gertatzen dena ondo islatzen du (%52) baina Udaletxeaz ematen duen informazioa oso exkaxa da (%24).
%66-k kutsu ideologikorik ez duela uste du, %28-k baietz. HB da gehien aipatzen den alderdia %14.
6. Aldizkariak darabilen euskara ondo ulertzen da (%86), baina Donostiako euskararen presentzia gutxiegiak dela %22-k uste du.
7. %30-k ez zuen euskaraz irakurtzeko ohiturarik Irutxulo jasotzen hasi aurretik.
8. Astekariaren diseinua irakurterraza da.
9. Balorazio orokorra: 6.979

5.5. AKATZ

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila:

0-24 urte, emakumezkoa, langilea, euskaldun zaharra.

2. AKATZ aldizkaria oso ezaguna da Bermeon (96.2). Jendeak norik argitaratzen duen badakiela uste du (%54) baina oker dabilta. Izan ere gehiengoak udaletxeak (%32.7) argitaratzen duela uste bait du eta egia Ikuspegi Elkarteak (%19.2) plazaratzen duela bait da.

3. Bermiotar askok jasotzen du etxean (%63.5), gehientsuek (%40.4) beti irakurtzen dute, baina 15 minutu baino gutxiago erabiliaz (%69.2), eta etxean astebetez (%42.3) gordetzen dute.

4. Herritarren partehartze zuzena oso mugatua da, %84-k ez du idatzi inoiz eta norberaren argazkia %30.8-k ikusi du argitaratuta.

5. Bermioko bizimodua ondo isladatzen du (%76.9), eta udaletxeaz ere informazio ona eskaintzen du (%71.2). Kutsu ideologikorik ez dauka %69.2-rendako baina bai, ordea, %25-rendako. Zein alderdiren kutsua duen galdetzean PNV aipatzen du %23.4-k.

6. AKATZek darabilen euskara ez du % 38.5ak ulertzen eta 34.6-k uste du herriko euskararen presentzia gutxiegiak dela. Hori bai aldizkariko euskara %55.8-k bai ulertzen du eta herriko hizkuntzaren presentzia ondo dagoela deritzo %59.6-k.

Izugarrizko garrantzia du lehen euskaraz irakurtzeko ohiturarik izan ez eta AKATZ irakurriaz bat euskaraz irakurtzen duen jendearen kopuruak (%59.6).

7. Atalez atal Bermeotarrak Dinoa, Hasierako Komentarioa, Bermeoko Kondaerak, Beharrezko telefonoak eta Autobus eta Botika datuak dira irakurrienak.

Gutxien irakurtzen direnak berriz,

Emakumezkoek ez dute apenas irakurtzen Arrantza Zelan (%96.3) edo Portua (%96.3) atalak. Ezta Kirolak ere (%96.2).

8. Nahastua da aldizkariaren diseinua (%48.1).

9. Balorazio orokorra: 6.395.

5.6. TTUPI -TTAPA

Ondorioak

1. Irakurlearen perfila: 0-24 urte, emakumezkoa, langilea eta euskaldun zaharra.
2. Oso ezaguna da Ttipi Ttapa bere banaketa eremuan (%96) eta gainera badaki jendeak nork argitaratzen duen (%78). Baina gehiengoa ondo badabil ere, %56-k esaten du Ttipi Ttapa elkarteak argitaratzen duela,%14-k Udaletxeek plazaratzen dutela uste du.
3. Banaketa oso zabala dauka %94-k jasotzen bait du bere etxean eta oso irakurria da gainera %66-k beti eta 15-30 minututan (%44). Astebete izaten dute alea etxean irakurleek (%74).
4. Herritarren presentzia kontutan hartzekoa da. %18-k inoiz idatzi egin du aldizkarian eta %40-ren argazkia agertu egin da noizbait aldizkarian inprimatuta.
5. Bailaran gertatzen dena ondo isladatzen du (%40), baina Udaletxeetaz ematen den informazioa nahikoa baino ez da (%54) irakurle gehientsuenentzat.
- Irakurleetarik %80-k kutsu ideologikorik ez duela aldizkariak aipatzen dute, %20-k berriz kutsua hartu egiten dio. HB da aipatuena (%10).
6. Ttipi-Ttapak darabilen euskara oso ondo ulertzen da (%94) eta bertako euskararen presentzia gutxiegiakoa dela %30-k uste du.
- Hori bai, Ttipi-Ttapa jasotzen hasi aurretik %52k ez zeukan euskaraz irakurtzeko ohitura-rik.
7. Atalez atal
8. Astekariaren diseinua irakurterraza da (%70).
9. Balorazio orokorra: 7.75.

6. KONKLUSIO OROKORRAK

6.1. Igorlea

Konklusio modura zera aipa daiteke lehenengo eta behin. Ba dagoel eredu bat, honako ezaugarriak izango lituzke:

- . astekari edo hamabostekaria
- . bi edo hiru pertsona soldatapeko eta laguntzaileek osatutako lantaldea.
- . batez ere diru laguntza ofizialez eta publizitateari esker finantziatutakoa.
- . dohainik etxeetan banatzen dena.
- . autoedizioz landutakoa. DIN-A4 formatoa.

6.1.1. *Sorrera*

1. Zaharrena Arrasate Press da 1988. urtean sortutakoa eta berriena berriz Irutxulo 1994. urtean.

2. Euskararen aldeko elkarrekin sortutako aldizkariak dira. Ideia eta haserako pausuak bertan eman eta gero aparteko elkarte batera pasatakoak.

6.1.2. *Lantaldea*

1. Profesionaltasunaren apustua egin dute aldizkariok. Irutxulo da lantalde zabalena duena soldatapean egun osoz: 2 kazetari, gerentea, maketatzaila eta bi publizista. Akatzek berriz bi lagun besterik ez ditu lanean eta kultur elkartetik kobratzen dute.

2. Publizistak normalean soldata minimo finko bat eta komisioa kobratzen ditu.

3. Laguntzaileek ez dute kobratzen eta korresponsariek ere ez normalean. Ttipi Ttanpan bai, 2.500 pzt. aleko.

4. Erredakzioaren gainetik Zuzendaritza batzordea egoten da, eguneroko lanean ez egon arren aldizkariaren norabidean, edukietan eta erabakietan laguntzeko pertsona talde zabala.

6.1.3. *Produktzio sistema*

1. Autoedizioa da nagusi. Akatzen izan ezik beste guztietan.

2. Astekariaren antolaketa: astelehenean erredakzio bilera, aurreko alearen kritika eta berri-rako gai eta lan aukeraketa eta banaketa. Asteazken gauean edo ostegun goizean inprentan entregatu. Ostiralean banatu.

Ttipi Ttipak 3 egun behar ditu banaketarako eremu handian zabaltzen bait da.

3. Banaketa talde propioek egiten dute.

4. Egoitza Udalak utzitakoa izaten da. Akatzen ez.

6.1.4. *Finantziarioa*

1. Dirulaguntza publikoak dira finantziabide nagusia.

2. Publizitatea normalean %40-raino iristen da.

3. Zenbait kasutan defizita Udalek bere gain hartzen dute (Ttipi Ttapa), baina kredituak ere eskatu behar izan dira (Irutxulo).

6.2. Edukia

6.2.1. Azalak

1. Itxura aldetik badago koinzidentzia sei aldizkarien artean: argazki nagusi bat eta titularrak, gero barruan erreportaiaren landuko dena.

Irutxulok, Ttipi Ttapa eta batzutan Arrasate Pressek barruko gaien dei batzuk ere bada-kartzate.

2. Mantxeta goikaldean eta ezker eskubi azaltzen da Barrenen izan ezik, goitik behera honek.

3. Arrasate Press, Ttipi Ttapa eta Irutxulok koloretan argitaratzen dute azala. Barrenek lau koloretan eta Akatz eta Goierriarrak zuribeltzean.

4. Gaiak dagokionean aniztasuna da nagusi. Gizarte gaiak daukate lehentasuna eta hori bai bertako jaiak edo oporrak izanez gero dagokion aleko izar eurak dira, azal eta guzti noski.

5. Azalean publizitatea Akatz eta Barrenek dakarte, gainontzeko lau aldizkariak ez.

6.2.2. Sekzioak

1. Finkotasuna dute bai orrialde kopuruan eta baita kokapenean ere. Irakurleak badaki zer non aurkituko duen. Ez hainbeste ordea Goierriarran.

2. Irutxulo, Goierriarra eta Tippi Ttapak egitura berezia dute. Informazio orokorra eta herriz herri edo auzoz auzokoa bereizi egiten dute. Lehenengoak Gipuzkoako hiriburuko astekaria delako eta auzoei eman nahi dien garrantziagatik eta beste biek eskualde aldizkariak direlako.

3. Arrasate Press eta Irutxulok 36 orrialde dituzte normalean. Ttipi Tapak 32 bueltan, Barren eta Goierriarrak 28 eta Akatzek 20.

6.2.3. Udala

1. Ez dira Udalak argitaratutako aldizkariak, Kultur Elkarteen plazaratutakoak baizik. Hori bai Udaletatik diru laguntza jasotzen dute.

2. Informazio iturri modura Udalak garrantzia du, baina zerbitzuak eta eskaintzak dira, gizarte gaiak, eta albiste modura tratatuak daude. Ez dago aldizkariaren aldetik Udalarekiko erizirik. Informazio iturri den elean tratatzen dira Udalarekin lotuta diren gaiak. Politikoak ez direnak normalean. Udalak ez dauka orrialde berezirik Barrenen izan ezik (Udaletxetik Udalerrira).

Akatzen berri modura ere apenas agertzen dira Udaleko gaiak. Goierriarrak berriz hiru alkateri elkarrizketak egiten die. Salbuespenak dira.

3. Herritarren gutun eta erizietan bai agertzen dira Udalarekiko kritikak eta hobetu beharrik.

6.2.4. Informazioa - Eritzia

1. Batez ere aldizkari informatiboak dira. %20-25 informazioa bait da bataz beste sei aldizkariotan. Ez dago editorialik.

.2. Informazioa eta Eritzia ondo banatzeko ahalegina ageri da, baita sailen izenetan bertan ere.

3. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan pluraltasuna da aurkitu nahi dena.

4. Arrasate Press, Irutxulo eta Barrenen eritzi artikulua batez ere aldizkariaren lehenengo orrialdeetan kokatzen dira.

6.2.5. Herritarren Partehartzea

1. Hiru partehartze maila ageri dira:

- Zuzena eta aktiboa: gutunak. Batez ere politika, euskara eta gizarte gaiak aipatzen dituzte herritarrek.

Barrenen, berezitasun modura, telefonoz ere jasotzen dituzte eritziak gero keaxak, galderak eta txaloak sailean sartzeko.

Akatzen, beste bostetan ez bezalaxe, gutunak ez dira sinatuta agertzen.

- Protagonismo grafikoa: inkesta saila batez ere. Gizarte gaiak dira normalean. Zutabeak eta eritzi artikulua ere egilearen argazkiarekin azaltzen dira gehienetan.

- Kolaboratzeile taldea. Erredakziotik aukeratzen da eta eritzi sortzaile eta aniztasun lekuko izateko asmoz aukeratutako firmak dira.

6.2.6. Euskara

1. Arrasate Press, Ttipi Ttapa, Goierritarra, Barren eta Irutxulo euskara batuaz argitaratzen dira. Akatz, berriz, bizkaieraz.

.2. Batuaz argitaratzen diren elkarrizketatuen hitzak transkribatzerakoan bertako hizkuntza mantentzen saiatzen dira.

3. Arrasate Press eta Barrenek, euren euskalkia batutik urrun dagoenez, diskusio gunea beti dute zabalik bertakoari zein tratamendu eman behar zaion egokitzeke.

4. Ttipi Ttapa, Irutxulo eta Akatzek orrialde bereziak dituzte euskararen inguruan. Gai nontzekoetan ere euskarak informazio sortzaile modura pisu berezia du.

6.2.7. Argazkiak

1. Barren da argazkiei tarterik handiena eskaintzen dion aldizkaria, %35 grafikoekin batuz gero, eta Goierritarra argazki gutxien daukana, %14. Besteak bitartean dira noski.

2. Irutxulon eta Ttipin Ttapan argazkiak sinatzeko ahalegin berezia dago, beste aldizkarietan ez.

3. Orohar argazkiak testuak bezain zainduak ez daudela esan daiteke. Kalitate aldetik batez ere.

4. Argazki zaharrak garrantzi berezia dute. Historikoa. Sekzio eta guzti zenbait aldizkari-tan.

6.2.8. Gehigarriak

1. Herriko jaiak direnean beti dago ale edo gehigarri berezi bat.

2. Gainontzean Akatz, Goierritarra eta Irutxulok ez dute gehigarririk argitaratzen.

3. Arrasate Pressek Zaldibarko Futbito txapelketa jokuan dagoen artean 4 orriko berezia plazaratzen du urtero. Gero beste zenbait berezi ere bai aktualitateari eta publizitatea sortze-ko duten gaitasunari lotuta.

Barrenek 4 gehigarri ditu hilero: Zaharrak Berri (nagusiak), Txikibarren (umeak), Kiliba-rren (Mendaro) eta Baserrira (baserria).

Ttipi Tttapak hiruhilero euskara materiale didaktikoa plazaratzen du gehigarri modura eta gero publizitatearen arauera, nekazal turismoa esaterako.

6.2.9. Publizitatea

1. Dirulaguntza publikoez gainera diruiturri nagusia da.

2. Batz bestea aldizkariaren laurdena betetzen du publizitateak.

3. Akatz eta Barrenek azalean ere iragarkiak dituzte.

4. Kontrazala publizitatea da ia beti.

5. Bertako eskualde edo herritik kanpoko, alboko, iragarkiak salbuespena baino ez dira.

6. Arrasate Press, Irutxulo eta Ttipi Tttapak publizitate instituzionala badute, Akatzek oso gutxi, Barren eta Goierritarrak ez.

7. Aldizkariak orrialde batzuk koloretan baditu baita publizitatea ere.

7. BIBLIOGRAFIA

ARKO. *Herri Komunikabideei buruzko II. Ihardunaldiak*. Arrasate: ARKO, 1993.

BARDIN, Laurence. *Análisis de contenido*. Barcelona: AKAL Universitaria, 1975.

EUSTAT. Euskal estatistiko Erakundea. *Udal-adierazleak 1994*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1994.

KRIPPENDORFF, Klaus. *Metodología de Análisis de Contenido*. Barcelona: Ed. PAIDOS, 1991.